



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Euskal Herriko espazio
transfeministetako hizkuntza
ideologiak: Hitzun
mamarratxoaren erradiografia bat**

Onintza Legorburu Larrea

43-51 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.05>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Euskal Herriko espazio transfeministetako hizkuntza ideologiak: Hiztun mamarratxoaren erradiografia bat

Onintza Legorburu Larrea
EHU (Ikasketa feministak eta generokoak doktoretza programa)

olegorburularrea@gmail.com

Laburpena

Espazio transfeministei begiratzeko gonbita egiten du honako artikulua honek. Espazio transfeministetako etnografia bat da; baina ez etnografia oso bat. Hau da, espazio transfeministetako hizkuntza ideologiei eta bertako hiztunei begiratzen die. Espazio transfeministetan hiztun profil berri baten sorrera bat dagoenaren susmoari jarraiki, euskal “hiztun mamarratxoaren” erradiografia bat egiten saiatzen da ikerlan hau. Zein praktika eta elementuren bidez sortzen den hiztun profil hori mahaigaineratuz.

Hitz gakoak: Espazio transfeministak; hizkuntza ideologia; hiztun mamarratxoa; gorputz politikoa

Summary

This article invites you to look at transfeminist spaces. This work is an ethnography of transfeminist spaces, but it is not a complete ethnography; indeed, it analyses only the linguistic ideologies and speakers in transfeminist spaces. Following the suspicion that in transfeminist spaces there is a new profile of speaker, this study tries to make a small analysis of the queer speaker (*Hiztun mamarratxoa*). By trying to make visible the practices and elements through which this speaker profile is created.

Keywords: Transfeminist spaces; language ideology; queer speaker; political body

1. Sarrera eta motibazioa

Euskal Herrian transfeminismoa¹ eta euskara, ez dira orokorrean eskutik helduta joan. Baina azken urteetan egoera irauli egin da, eta euskal transfeminismoak gehiengoan euskaraz funtzionatzen duela azpimarratu daiteke. Are gehiago, euskal transfeminismoa, euskararen biziberritzerako giltza bilakatu dela ere aipatu daiteke.

Honako artikulua honetan, Euskal Herriko espazio transfeministei begira jarriko gara. Zehazki, lekuan lekuko lana oraindik ere amaitu gabe dagoen tesi bateko behaketak baliatuta², espazio transfeministetako hizkuntza ideologiei, eta hiztunei erreparatuko diegu. Badago susmo bat, Euskal Herriko espazio transfeministetan, eta horietan sortutako performance ezberdinen bidez, euskarari eta euskal hiztunei, bestelako elementu eta gorputz praktika (Muñiz, 2010: 41-42) batzuekin, forma eta adiera ezberdina ematen ari zaionarena. Eta horixe da, artikulua honetan mahaigaineratu nahi dena. Zeintzuk dira espazio

¹ Korrante transfeministak feminismoaren subjektuak zabaldu egiten ditu, eta zisheteropatriarkatuak zapal dutako beste pertsona batzuk ere hartzen ditu bere subjektutzat; ez baitute nahitaez emakume izan behar. Mugimendu honen arabera, generoaren kontzeptua opresio-mekanismo gisa erabiltzen den eraikuntza da. Halaber, uste da generoa botere-sistema bat dela, gorputzak gizarte-ordena jakin batera egokitzeko mugatzen duena. Dena dela, transfeminismoa ez da ulertu behar feminismoaren gainditze baten moduan, honen baitan kokatutako korrante gisara ulertu behar da; bere genealogia feministarekin (Ziga, 2014).

² Tesian zehar, espazio transfeministen etnografia bat egiten ari naiz. Gaur egun, behaketak egin ditut espazio horietan (2 jaialdi, 2 performance, kalejira bat eta 2 tailer). Oraindik, lekuan lekuko lana 2025 osoan zehar egingo dut, hortaz, amaitu gabeko etnografia batetik ateratako ondorioak dira artikuluan ageri direnak. Susmoak, eta orain arte ikusitakoak dira hortaz.

transfeministetan sortzen diren elementuak euskal hiztun berri bat artikulatzeko? Zein eratak da euskal hiztun berri hori?

2. Ikerketaren helburuak

Ikerketa lan honek, bi helburu nagusi ditu. Batetik, **Espazio transfeministetan zirkulatzen duten hizkuntza ideologiak ezagutzea, bertan sortutako performance eta diskurtsoen azterketatik abiatuta**. Eta bestetik, **Espazio transfeministetan sortzen ari den hiztuna nolakoa den aztertzea**. Hala nola, eta bi helburu hauei lotuta, hiru izango dira, ikerlan honen muinean egongo diren galderak:

- Zer nolako euskarari lotutako legitimazio prozesuak ari dira sortzen espazio transfeministetako performancetan?
- Legitimazio prozesu hauetan, zer nolako praktikek, elementu eta gorputzek parte hartzen dute?
- Nolakoa da espazio transfeministetan sortzen ari den hiztuna? Zein ezaugarri ditu?

Hala nola, helburu horiek lortzeko, metodo etnografikoa erabili da. Hemen jasotzen diren gogoetak, bi jaialdi, bi performance, kalejira bat eta bi tailerretako behaketetatik eratorritakoak dira³. Espazio feministetako behaketak egiteko, hainbat irizpide hartu izan dira kontuan, eta horien arabera aukeratu da, non eta nola egin behaketak:

- Jarduera artistiko ezberdinak hartuko dira performancetat: Jaiak/Jaialdiak; Kontzertuak; Podcastak; Antzerki/performanceak; bertso saioak
- Transgresioa oinarrian duten performanceak izango dira. Moralitate jakin baten aurka egitea helburu dutenak. Horregatik, jardunaldi, hitzaldi eta horrelakoak, ez dira performancetat hartuko.
- Euskaraz sortutako ikuskizunak aztertuko dira
- Jarduera artistiko horiek, ez dira soltean antolatutakoak izango. Hau da, mugimendu militante handiago baten baitan antolatuak izango dira. Horregatik, kontzertu solteak adibidez, ez dira aztertuko orokorrean. Jarduera edo performanceen sorrerak, mugimendu transfeministarekin hartu emana izan beharko du (Mugimendu autonomoaren parte izan beharko dira neurri batean). Egiletza taldean izatea, militantziak pisu bat izatea...
- Orokorrean, ikuskizun horiek, ez dira norbaiten enplegu gisara sortuak izango; mugimendua izan beharko dute ardatz, beste eszena handiago bat.

3. Arloko egoera

Ikerketa honetako helburuetan ageri den moduan, bi izango dira hortaz, ikerketa honek muinean izango dituen kontzeptu teorikoak. Kategoria analitiko nagusia, *hizkuntza ideologiena* izango da. Eta honekin lotuta, *hiztunaren kontzeptuak* ere, izango du zentralitate bat. Hiztuna eta hizkuntza ideologiaren kontzeptuak, ezinbanatuzko kontzeptu moduan ikusten dira lan honetan. Hau da, hiztunaren gorputz praktikak baliatuta, aztertuko dira hizkuntza ideologiak. Gorputz praktikak, Elsa Muñizek (2010: 41-42) definitzen dituen gisara ulertuak izango dira: *“Entendemos las prácticas corporales como sistemas dinámicos y complejos de agentes, de acciones, de representaciones del mundo y de creencias que tienen esos agentes, quienes actúan coordinadamente e interactúan con los objetos y con otros agentes que constituyen el mundo”*. Hala, hiztunaren gorputz praktiken bidez, hizkuntza ideologia batzuk erreproduzituko direla ulertzen da; jarraikortasun bat emango zaiela hizkuntza ideologia batzuei. Baina horretaz gain, gorputz praktiken bidez, hizkuntza ideologiaren produkzio bat ere emango da; gorputz

³ Behaketa horiek, Euskal Herriko lurralde osoan zehar eginak izan dira. Behaketak aukeratzeko irizpideei jarraiki egin dira, baina egutegia ere kontuan izanda. Hau da, behaketa horiek, 2024ko urrian hasi, eta 2025eko otsailera artekoak izan dira.

praktikek, sorrerarako eta erresistentziarako tartea eskainiko baitute, hizkuntza ideologia berri batzuk sortzeko ere, baliatuko baitu hiztunak bere gorputza. Horrekin batera, eta batez ere, hizkuntza ideologiaren kontzeptuarekin lotuta, *gorputz politikoa* kontzeptuaren definizio bat ere emango da. Gorputz politikoaren kontzeptuak, ez du zertan hizkuntza ideologiek lotura izan beharrik; mugimendu baten gorputz errepresentazioei egiten baitie erreferentzia. Dena dela, hemen gorputz horiek hiztun gisara irakurriak izango dira. Hortaz, hizkuntza ideologiek izugarritzko lotura izango dute espazio transfeministetako gorputz politikoarekin. Alegia, hiztun horien gorputzen errepresentazioarekin. Horregatik, gorputz politikoaren kontzeptua, hizkuntza ideologiaren kontzeptuarekin batera azalduko da.

3.1. Hiztuna

Ikerlan honetan, hiztuna modu espezifiko batean ulertzen da. Hitztunaren identitatea, eta hiztuna bera, modu orokorrean, ohiko praktiken sedimentazioaren bidez sortzen dela ulertzen da; kasu honetan, gorputz praktiken bidez; tartean, hizkuntza praktiken bidez (Bourdieu, 1985). Dena dela, eta hitzunaren eraikuntza honetan errepikapen gorputzuak izugarritzko pisua izango duen arren, hiztunak agentziarako (Ahearn, 2001) tarte bat ere baduela ulertzen da. Eta nolabait, interesgarria zaigu, agentziarako tarte hori ere esploratzea (Wenger, 1998 in Bucholtz eta Hall, 2004: 378; Lave eta Wenger, 1991). Agentziarako tarte horren baitan, eta erresistentzia praktika gisara, ulertzen baititugu espazio transfeministetan gaur egun sortzen dabiltzan hitzunaren errepresentazio berriak.

Hiztuna sortzerako unean hortaz, praktikek garrantzia handia daukatela uste da. Praktiken garrantzia azpimarratuz gainera, eta praktiketan zentralitatea jarritz, hiztuna bera ekartzen da ikerketaren zentrora, eta ez horrenbeste hizkuntza:

“Modu honetan, hiztuna protagonista bilakatzen da, gizarte aktorea edo ekintzaile bihurtzen baita. Komunitate bateko partaide izateaz gain, errealtatearen sortzaile gisa —hizkuntzaren jabe den neurrian— ere agertzen zaigu. Ekimen eta egitearen poderioz bere oinatza uzten du testuinguruan, baina hori ere bueltan etorriko zaio, aritze horrek bere identitatearen sorkuntzan, eraikuntzan eta berreraikuntzan ondorioak izango dituelako. Horra hor, identitate performatiboaren gakoa: gizabanakoaren inplikazio aktiboa (ekitean/egitean sortzen duelako bere identitatea, alegia, hura performatzen duen neurrian)” (Hernández, 2016: 187).

Izaera performatibo horretatik, errealtatearen sortzaile da hortaz hiztuna, Jone Miren Hernándezek azpimarratzen duen moduan. Hala nola, garrantzitsua da, hitzunaren produkzio eta erreproduktzioarako gaitasun hau aitortzea, eta hitzunari daukan objektu izaeratik eta neutraltasun horretatik aldentzea.

Hiztuna ez baita neutroa, eta ez da soilik hiztuna. Hau da, subjektu bat hiztuna denean, ez da soilik hiztuna. Hitztun horrek berarekin dakartza, generoa, klasea, arraza... Hala nola, printzipioz behintzat, ez dago soilik euskaldunak adibidez izateko aukerarik. Beti izango baikara, euskaldunak eta beste zerbait gehiago (Hernández, 2008: 31).

Hiztunekin eta hiztuna soilik ezin izatearekin lotuta, badago ikerketa honetarako ezinbestekoa den kontzeptu bat, eta hori hiztun legítimoarena da. Ondoren sartuko garen arren, hizkuntza ideologiaren kontzeptua definitzen, esan daiteke, hizkuntza ideologiek, besteak beste, gaitasuna dutela hitzunak sailkatzeko eta bereizteko. Horrela, hiztun batzuk legítimotzat hartuko dira, eta beste batzuk ez (Bucholtz, 2003: 400).

Hala nola, hizkuntzen eta orokorrean hitzunen legítimazioa, prozesu bidez sortua da. Eta prozesu orok behar du, bere leku-unean aztertua izatea. Hala ere, eta nahiz eta beraien arteko ezberdintasunak izan, esan daiteke, orokorrean, hiztun legítimoa(k) existitzen direla hizkuntza guztietan, eta hiztun legítimo hauen autoritateak, beste hitzunen identitate eta subjektibitateen sorreran ere eragina izango duela:

“El hablante legítimo es el que habla como las clases que se distinguen socialmente por sus capitales simbólicos, cultura, saber hacer, etc. Sin embargo, los ejemplos que estamos viendo en este capítulo van más allá de la mera imposición de una norma. En ellos se persigue reconducir a los hablantes, que se corrijan y se dejen corregir, asemejándose con ello a un modelo de hablante que es una «autoridad» en la lengua en cuestión. Es más, en la medida en que «no se adapten» y se alejen de este modelo verán negada su pertenencia a una comunidad de hablantes” (Martín Rojo, 2020: 179).

Hortaz, hiztun legítimoaren kategoriak araua sortuko du, baina horretaz gain, hiztunak diziplinatuko ditu, eta hiztunek beraien burua ere diziplinatuko dute; hiztun legítimo horren antza izateko asmoz. Hiztun legítimoen eta hiztun ez legítimoen arteko bereizketak, hau da, hiztun motak edo ereduak egoteak diziplinamendua dakar (*Ibid.*: 180).

Hala nola, hiztun legítimoaren kategoriak dikotomiak sortzen ditu –hiztun legítimoa dena, eta ez dena-, eta horrekin batera, baita normatibitate ereduak ere. Normatibitate horretan kabitze diziplinamendu bat, neurri bat ezartzen baldin badu ere, aipatu behar da, eta jada lehen esan den moduan, legitimazio prozesua oso kokatua dela. Hizkuntza nagusietako, edo hizkuntza hegemonikoetako hiztun legítimoak bere kapital sinbolikoagatik, kulturagatik, eta abarregatik, sozialki bereizten diren klaseak bezala hitz egiten du (Martín Rojo, 2020: 179). Eta horretaz gain, Estatuaren hizkuntza instituzionalak ere zerikusia izango du hiztun legítimo honen eraikuntzan. Klase sozial jakin bateko hizkera erabiliko du hiztun legítimoak, eta Estatuaren hizkuntza instituzionalizatua ere menperatuko du (Bourdieu, 1985: 22-23). Hau da, Estatu horretan boterea duen hizkuntza – instituzionaliki posizionatua, klase jakin bateko pertsonen darabiltena... Azken finean, Estatu hizkuntza gorpuztuko du hiztun legítimoak.

Hala ere, hizkuntza gutxiagotuetan legitimazio prozesuak ezberdin funtzionatu izan du, eta elementu legitimatzaileak ere ezberdinak izan dira. Hizkuntza gutxituetan, elementu legitimatzaileek autentikotasuna (Woolard, 2008) bilatu izan dute. Hau da, purutasuna, lurralde finko bateko “berezko” hizkuntza izatea... dira, sarri askotan hizkuntza gutxiagotuen legitimazio prozesuetan parte hartzen duten elementuak. Hala nola, hizkuntza gutxiagotuetako hiztun legítimoa, hiztun autentikoa (Eckert, 2003: 292) izan da. Horrela, hiztun autentiko edota legítimo ideala, , hizkuntza gutxitu askotan, nekazal eremuko gizonekin egon izan da lotuta. Hau da, tradizionalismoa, erlijioa, nekazal eremua... egon izan dira hizkuntza gutxituekin lotu izan den iruditerian (Aneja, 2016; Bonfiglio, 2013)⁴.

Hortaz, garrantzitsua da mahaigaineratzea, hiztun legítimoak generoa, eta normatibitatea errepresentatzeko modu bat izan duela. Hau da, hiztun legítimoa, bestelako hiztun guztien moduan, generoduna da, eta gainera, hizkuntza bateko normatibitatea errepresentatzen du. Baita, euskaran ere.

Zentzu horretan, interesgarria da, Jone Miren Hernández eta Marta Luxán ikertzaileek plazaratzen dutena, beraiek, hiztunaren figura erreferentzia generizatua izan dela beti, azpimarratzen baitute. Hau da, hiztunaren figura instituzio, eta prozesu ezberdinen bidez, eraikia izan dela azpimarratzen dute, eta beti, momentuko genero eskakizun eta arau nagusien baitakoa izan dela. Horretaz gain: *“Euskal hiztun “ideala” emakumezko izatetik gizonzko izatera pasa da, gero, berriro emakumezko izatera igaroz, historiako une bakoitzean prestigio iturria ziren elementuen arabera”* (Hernández eta Luxán, 2024: 92).

⁴ Hizkuntza gutxitu, zein hizkuntza hegemonikoetan hiztun legítimoak sortzeko prozesuak ezberdin operatzen baldin badu ere, esan beharra dago natibismoa, hau da, hitz egiten den hizkuntza hori lehen hizkuntza izatea oso garrantzitsua dela. Horrela, hizkuntza hegemoniko zein hizkuntza gutxituetan, hiztun natiboa hiztun legítimoa izango da beti; hiztun berriari kontrajarrita eraikiko da gainera kategoria hori (O’Rourke eta Ramallo, 2013; Ramallo eta O’Rourke, 2014).

Hala nola, euskarak hortaz, historiako momentu ezberdinetan gehiago balio izango zigun gizon aritzeko, emakume aritzeko baino, errepresentazioa edota erreferentzialtasuna gizon edota emakumeekin, edota hobeto esanda, maskulinitate edota feminitatearekin lotua izan baita.

Hiztuna hortaz, ez da hitz egiten duen pertsona gisara soilik hartuko. Hiztunak ertz asko izan eta barnebilduko ditu bere baitan. Eta lan honen helburuetako bat, espazio transfeministetan sortzen ari den hiztuna nolakoa den azaltzea izango da; zein elementu barnebiltzen dituen bere baitan mahaigaineratzea, alegia.

3.2. Hizkuntza ideologiak eta gorputz politikoa

Hizkuntza ideologiaren kontzeptua, kontzeptu konplexua eta zabala da (Artetxe, 2023: 463). Definizioen munduan sartuz gero, hizkuntza ideologia bere horretan definitu zuen lehenengoetarikoa, eta ondorioz, definizio klasikoenetakoa Michael Silverstein-ek 1979an eman zuena da: *“Ideologies about language, or linguistic ideologies, are any sets of beliefs about language articulated by the users as a rationalization or justification of perceived language structure and use”* (Silverstein, 1979: 193). Sinesmen multzo gisara definitzen da hortaz, hizkuntza ideologia.

Dena dela, hizkuntza ideologia kontzeptua definitzeko, eta honi ahalik eta ertz gehien ateratzeko ahalegina Kathryn Woolard antropologo Estatu Batuarrek egin du. Urte batzuk daramatza kontzeptu honen bueltan, eta honela definitzen du ikerlari honek hizkuntza ideologia: *“Son las representaciones, sean explícitas o implícitas, que interpretan la relación entre la lengua y los seres humanos en el mundo social”* (Woolard, 2012:19). Hortaz, hizkuntza ideologia gizarte formen eta hitz egiteko moduen arteko lotura izango da, eta zentzu horretan, gizarte horretako botere harremanen inguruko hainbat informazio eman liezagukete ideologiek; edota, hizkuntzaren erabilerak berak. Definizio hori aintzat hartuta adibidez, esan daiteke, subjektu konkretu batzuen hizkuntza praktikak, edota praktika sozialak, eta bertan ematen diren hizkuntzaren interakzioak aztertuta, bestelako sistema batzuk aztertu genitzakeela: *“Entre las formas lingüísticas y las estructuras sociales – por ejemplo, entre un acento y una decisión de no contratar a alguien para un puesto laboral – median conexiones ideológicas que algunas autoras como Kathryn Woolard han denominado ideologías lingüísticas”* (Amarello, 2023: 6). Azentu baten, eta pertsona hori ez kontratatzearen arteko harremanetik, gizarte horretako klase harremanak edota arrazakeria ere aztertu daitezke esaterako. Ikerlan honetarako adibidez, oso interesgarria izan da, hizkuntza ideologiak eta genero ideologiak uztartzea; sistema bateko arauen apurketak, ea beste sisteman ere eragin bat duen aztertu baita.

Hizkuntza ideologia kontzeptua aipatutako bi ertzetatik ulertuko da. Hala nola, elkarlotuta dauden bi definizio hartuko dira aintzat Silversteinena (1979), eta Woolardena (2012). Batetik, hizkuntza ideologia hiztunak hizkuntzaz dituen sinesmenen multzo gisara ulertuko da. Hortik saiatuko gara ulertzen, espazio transfeministetan zein elementu eta praktikaren bidez, ari den euskara bestelako balio eta errepresentazio batzuekin lotzen.

Eta bestalde, Kathryn Woolarden (2012: 19) ikuspegia ere interesgarritzat jotzen da. Hizkuntza ideologia gizarte formen eta hitz egiteko moduen arteko lotura gisara ulertua izango baita. Bigarren ikuspegi hau, guztiz baliagarria izango zaigu, espazio transfeministetan ematen diren transgresio bideak ulertu, horietan dauden (hizkuntza) praktikak aztertu eta hiztun mota edota profil ezberdinak ezagutu ahal izateko.

Woolarden (2012) hitzei jarraiki, esan daiteke, hizkuntza ideologiak, gizarte formen eta hitz egiteko moduen arteko lotura ez ezik, gorputz formen eta hitz egiteko moduen arteko loturak ere badirela, eta horiek ezartzen dituztela. Hala, interesgarria da, espazio transfeministetan sortzen ari den gorputz formari ere erreparatzea. Hau da, espazio transfeministetak gorputz politikoari erreparatzea ere,

interesgarritzat jotzen da. Mari Luz Estebanek honela definitzen du gorputz politikoaren kontzeptua: *“Por ‘cuerpo político’ me refiero a un conjunto articulado de representaciones, imágenes, ideas, actitudes, técnicas y conductas encarnadas, una configuración corporal determinada promovida consciente o inconscientemente desde un movimiento social, en nuestro caso el feminismo, que se concreta a nivel individual y colectivo”* (Esteban, 2011: 65). Hortaz, hizkuntza ideologiek batera, espazio transfeministetako gorputz politikoaren eratzeari ere erreparatuko zaio.

4. Ikerketaren muina

Honako artikulua hau, oraindik zabalik dagoen ikerketa baten zatitxo bat besterik ez den arren, jada ikusenezake, aztertutako, eta batez ere behatutako espazio transfeministetan, hainbat elementu eta, gorputz praktikaren bidez, bestelako hitz bat, eta hizkuntzarentzako legitimazio bide berriak sortzen dabiltzala. Eta horretaz gain, gorputz politiko (Esteban, 2009, 2011) berri baten aurrean ere aurkitzen garela azpimarratu daiteke; transfeminismoko gorputz politiko bat izango litzatekeena, baina euskarak ere arreta jarri beharko liokeena; hitz bat gisara ere, gorputz politiko hori interesgarria baita.

4.1. Dantza, sexualizazioa eta estetika: Hitzun mamarratxoaren sorkuntza elementu

Sarri asko, hizkuntza eta gorputza modu dikotomikoan irakurriak izan dira, bata bestean eraginik izango ez balu bezala, eta are gehiago, batek besteen sorkuntzan parte hartuko ez balu moduan (Altuna, 2023; Martinez, 2012). Hala nola, eta hizkuntzak hitzunaren eraikuntzan eragin nabarmena duen arren, hurrengo lerro hauetan, gorputzei eta gorputz praktikei erreparatzea proposatzen da. Gorputz praktikek ere, hitzek bezainbeste, hitzunaren eraikuntzan parte hartzen baitute; eta baita, hizkuntza ideologien eraikuntzan ere.

Hiru izan dira zehazki, gorputza erabilita espazio transfeministetako performanceetan agertu diren elementu legitimatzaileak; dantza, sexualitatea/sentsualitatea eta estetika.

Orain arte egindako behaketetan, **dantza** ezinbesteko elementua bilakatu da euskal hitzuna errepresentatzeko. Batetik, performance batzuetan, dantzaren bidez, euskalduntasunaren zurruntasunari⁵ kritika egiten zaio. Eta horretarako sarri asko erabiltzen den dantza moldeak, folklorea da. Folklorearen errepresentazio ezberdindu batekin, eta askotan, umorea/satira erabiliz, euskalduntasunaren zurruntasunari, eta lehen aipatu dugun “hitzun ideal” hori gorputzen duen irudiarri (Aneja, 2016; Bonfiglio, 2013; Hernández eta Luxán, 2024), barre eta kritika egin izan zaio. Kurioa da, baina umorea eta satira ere, oso hitzari lotutako elementuak, gorputzaren bidez azaleratu izan dira – nahiz eta, hitzez ere hainbat performancetan agertu izan diren-. Eta bestetik, modu informalago batean, baina espazio transfeministetan oso presente dagoen dantza bat, “perreoarena”⁶ da. Dantza mota honen bidez, gorputzen sexualizazio batekin, euskaldunen zurruntasun horrekin amaitzea edo, nahi dela ematen du. Ez da prestatuta, edota ikuskizun baten baitan dagoen zerbait, baina nahigabe, edota intentzioa hori izan gabe, esan daiteke, euskal zurruntasun horri, ipurdia lurreraino jaisten egiten zaiola aurre; gainera bai oholta ginetik, eta baita, oholta azpitik ere. Perreo espazio transfeministetan transbertsala baita. Hau da, bertan dauden subjektu guztiek praktikatzeko dute. Izan oholta gaineko musika jartzaileek, zein oholta azpian festa giroan lasai asko dagoenak.

⁵ Euskaldunen zurruntasunaz hitz egiten denean, euskaldunen figurak indarrak, sendotasunak, erresistentziak... izan duten garrantziaz hitz egiten da. Eta horrek sortu duen euskaldunen irudi gogor eta zurrunen inguruan. Nahiz eta aipatutako elementuak emakume eta gizonengan ezberdin gorputzu, elementu horiek, euskal identitatearen iruditeria horren baitan egongo dira. Emakume zein gizonengan sortu den iruditerian, alegia (Del Valle, 1985; Esteban, 2012).

⁶ Perreo reggaetoi dantza egiten modua da. Batez ere, ipurdia asko mugitzen da, eta gorputzen sexualizazio bat ematen dela esan daiteke.

Sexualitatea eta sentsualitatea jada aipatu den moduan, dantzaren bidez gorpuzten diren elementuak dira; edota, gehien bat, dantzaren bidez agertzen zaizkigunak. Baina ez soilik. Sexualitatearen gaia, gai zentrala da espazio transfeministetan, eta sexu disidentziaren gaiak esaterako, garrantzia handia dauka. Dantzaren bidez, gorputz disidenteen sentsualizazio bat ematen da; bestela, monstro (Magaña, 2023) gisara, eta ez gustagarri gisara, ageri zaizkigun gorputzen sentsualizazio bat, alegia. Horretaz gain, erreferentzia sexualak, uzkiari, klitoriari, bestelako sexu praktikei... ere egiten zaizkie. Kasu honetan, gorputzez baino, hitzezkoak dira erreferentzia horiek. Izan kantuen bidez, zein performanceetako testuen bidez ere. Dena dela, hitzez eta gorputzen bidez, sexualitatearen gaia, espazio transfeministen zentroan dagoen kontu bat da.

Eta azkenik, **estetikaren** elementua izango genuke. Estetika beste bi elementuak aurrera eramateko tresna dela esan daiteke; eta bere horretan, pisu handia dauka. Hau da, dantzan estetikak leku bat betetzen du, adibidez, folklorearen kritika, edota, zurruntasunarena ere, estetikaren bidez egiten baita, besteak beste –jantzi tradizionalei adibidez, kutsu sentsual bat ezarriz bestelako osagarri batzuekin-. Bestalde, gorputzen euskalduntzea ere performance askotan, estetikaren bidez egiten da. Adibidez, baserritar jantziak erabili izan dira behatutako performance batean baino gehiagotan⁷. Horretaz gain, estetika ezinbesteko elementua da batetik, gorputzen sexualizaziorako, eta bestetik, gorputzen “queertze” bat emateko ere. Hau da, estetikarik gabe, espazio transfeministetako gorputzak, nekez liriateke queer gorputz, edota sexualizatutako gorputz⁸. Horretan, jantziek, osagarriek, estiloak... izugarritzko zerikusia baitute.

Hala nola, aipatutako hiru elementu horiek erabiliko dira espazio transfeministetan genero arauari aurre egiteko. Genero disidentzia gorpuzteko moduak dira hiru elementu horiek. Dena den, eta genero araua nolabait arrakalatzea baldin bada ere helburua, edota, helburuetako bat, euskalduntasun bati kritika ere egiten zaio genero arauaren transgresio horretan. Jada aipatu den moduan, euskal hiztunaren irudia generizatua da (Hernández eta Luxán, 2024), hortaz, genero bitartasunetik aldendutako subjektu euskaldunek, bere horretan, euskalduntasun batekin, eta euskal hiztun izateko modu batekin apurtu egingo dute.

Hala, aipatutako hiru elementuen bidez, genero arauen apurketa eta euskalduntasun bati kritika egiteaz gain, edo horrekin batera, bestelako euskalduntasun bat sortzeko elementuak ere bilakatuko dira. Nolabait, performance batean, modu sentsualean “*erdizka eta laueta*” dantza egiten denean, edota, gaztetxe bateko festa batean, gorputz queerrak “perreatzen” ari direnean, eta euskaraz hizketan, euskal hiztunaren bestelako errepresentazio baten aurrean gaudela esan daiteke. Eta justuki hor diogu, hiztun mamarratxoaren sorrera ematen dela. Hiztun mamarratxoa Kira Hallen (2014) hiztun queerraren parekoa litzateke; baina euskalduna. Mamarratxoea, euskara mamarratxeatu beharra... lekuan lekuko lanean behin eta berriz agertzen dira. Hortaz, hiztun mota hori izendatzeko, lekuan lekuko lanean behin baino gehiagotan agertutako kategoria batekin izendatzea erabaki da.

⁷ Adibidez, Altxalili dantza ikuskizunean asko jokatzen da euskalduntasuna errepresentatzeko besteak beste estetikarekin, eta Santa Drageda Bilbon E28koordinadorak antolatutako santa eske dragean ere, baserritar jantziak ikusi ahal izan ziren. Gainera, euskalduntasuna errepresentatzeko, eta baita, honekin apurtzeko ere erabiliko dira osagarri estetikoak.

⁸ Bestelako espazioetako gorputzak estetikak bilakatzen dituen moduan normaren baitako, espazio transfeministetako gorputzak ere estetika baliatzen dute.

5. Ondorioak

Dantza, sexualitatea edo sentsualitatearen eta estetikaren bidez, guztiak elementu korporalak, hitzunaren produkzio bat ematen da, probokazioa eta transgresioa hitzun honen produkzioaren muinean egongo direlarik. Are gehiago, badirudi hitzun berri baten aurrean egon gaitezkeela. Honekin ez da inondik inora ere esan nahi, euskal hitzun queerria –mamarratxoa- gaur arte ez denik existitu, noski baietz. Queer euskaldunak existitu izan dira. Baina kolektibo gisara, hitzun mamarratxoaren iruditeria edota errepresentazioa, badirudi orain ari dela sortzen. Eta gainera, modu oso kontziente eta politizatuan egiten ari da. Zentzu batean, hitzun berria dela diogu, errepresentazio hori, aurretik ez zelako existitzen. Gainera, hitzun berri gisara aurkeztea interesgarria da hitzun mamarratxo hori, hitzun berri vs hitzun natibo dikotomia apurtu lezakeen hitzun mota bat baita. Eta ez hori bakarrik, esan daiteke, hitzun natibo generizatuarekin (Aneja, 2016; Bonfiglio, 2013; Hernández eta Luxán, 2024), elkarrizketan eraikitzen dela. Hala eta jada aipatu den moduan, orain arte hitzun berri vs hitzun natibo dikotomia apurtuko luke esku artean daukagun hitzun berri mota honek; berritasuna, hitzunaren berritasuna, beste leku batetik baitator. Genero sistemaren apurketatik alegia.

Horretaz gain, gorputz politiko (Esteban, 2009; 2011) gisara irakurri daiteke gaur egungo gorputz queer euskalduna edota, hitzun mamarratxoa. Eta hor ere badago berritasuna; gorputz horren forma kolektiboan, gorputz politiko bihurtzean, alegia. Sumatu daiteke, gorputz konfigurazio berri baten aurrean gaudela. Gorputz konfigurazio hori, mugimendu transfeministatik sortzen ari da, eta gorputz horretan queertasunak pisu bat dauka. Baina baita, euskalduntasunak ere. Gorputz politiko horren sorreran, queerria eta euskalduna batera izateak baitauka zentzua, eta errepresentazioak eta gorputz kolektiboa hortik sortzen dabiltzala esan daiteke. Zentzu horretan diogu hitzun berria dela espazio transfeministako performanceetan errepresentatzen den hitzuna. Hemen asmoa ez da, hitzunak berriz ere dikotomikoki ordenatzea, edota, existitzen ez diren tipologiak sortzea. Ez da hitzun modelo bat eraiki nahi. Baizik eta, gorputz politiko baten sorrera baliatu nahi da, gorputz horretan, hizkuntzak hartzen dituen formak zeintzuk diren ulertzeko. Hala nola, hitzun mamarratxoa espazio transfeministetan sortzen ari den gorputz politikoaren adiera bat litzateke; gorputz politiko horren hitzun forma, alegia.

6. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Ikerlan etnografiko honen muinean, susmo argi bat dago. Euskal Herriko espazio transfeministetan hizkuntza ideologia berriak, hizkuntzarentzako legitimazio bide berriak, eta hitzun profil ezberdinak sortzen dabiltzanaren susmoa dago, alegia. Artikulu honetan, behaketetan agertutako hiru elementuren bidez, “hitzun mamarratxoaren” eraikuntzari buruz hitz egin nahi izan da labur; eta hitzun mota horren gorputz politiko gisara konfiguratzeak daukan potentzialari buruz. Hemendik aurrera ere, doktoregotza tesiaren baitan, lekuan lekuko lanean sakontzea izango da helburua, eta espazio horietan gertatzen dabiltzan aldaketak jaso, eta horiek hizkuntzaren eta hitzunen galbahetik pasatzea.

7. Erreferentziak

- Ahearn, L. M. (2001). Language and Agency. *Annual Review of Anthropology*, 30, 109–137.
- Altuna, J. (2023). Hizkuntzaren funanbulistak Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Amarelo, D. (2023). Las múltiples lenguas de la transgresión: Nuevxs hablantes y sexualidades no normativas en Galiza. *Quaderns de Ciències Socials*, 2(48), 2–27.
- Aneja, G. A. (2016). Rethinking Nativeness: Toward a Dynamic Paradigm of (Non)Native Speaking. *Critical Inquiry in Language Studies*, 13(4), 351–379.
- Artetxe, M. (2023). Zer diote gazteek (gutaz)? Gazteak mintzo: diskurtsoak eta etorkizunerako proiektzioak, Hendaia.
- Bonfiglio, T. P. (2013). Inventing the Native Speaker. *Critical Multilingualism Studies*, 1(2), 29–58.
- Bourdieu, P. (1985). *Qué significa hablar?: Economía de los intercambios lingüísticos*. Akal.
- Bucholtz, M. (2003). Sociolinguistic nostalgia and the authentication of identity. *Journal of Sociolinguistics*, 7(3), 398–416. <https://doi.org/10.1111/1467-9481.00232>
- Bucholtz, M., eta Hall, K. (2004). Language and Identity. In *A Companion to Linguistic Anthropology* (or. 369–394). Alessandro Duranti.
- Del Valle, T. (1985). *Mujer vasca: Imagen y realidad*. Anthropos.
- Eckert, P. (2003). Sociolinguistics and authenticity: An elephant in the room. *Journal of sociolinguistics* *Journal of sociolinguistics*, 7(3), 392–431.
- Esteban, M. L. (2009, abendua 5). *Cuerpos y políticas feministas*. Jornadas Estatales Feministas, Granada.
- Esteban, M. L. (2011). Cuerpos y políticas feministas: El feminismo «como» cuerpo. In C. Villalba eta N. Álvarez (Arg.), *Cuerpos políticos y agencia: Reflexiones feministas sobre cuerpo, trabajo y colonialidad* (or. 45–84). Universidad de Granada.
- Esteban, M. L. (2012). Genero, gorputz eta kultur identitate bizituaren analisia, euskaltutasuna berrirakurtzeko ahaleaginean. In A. Álvarez eta G. Lasarte (Arg.), *Gorputza eta generoa: Euskal kulturaren eta literaturaren* (or. 29–46). Euskal Herriko Unibertsitatea EHU.
- Hall, K. (2014). Exceptional Speakers. In *The Handbook of Language, Gender, and Sexuality* (or. 220–239). John Wiley eta Sons, Ltd. <https://doi.org/10.1002/9781118584248.ch11>
- Hernández, J. M. (2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 4(69), 27–42.
- Hernández, J. M. (2016). Jarrera eta motibazio kontzeptuen haratago... Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 99(2), 179–195.
- Hernández, J. M., eta Luxán, M. (2024/). Hiztunaren genero nahasmendua. Hizkuntza gutxituak, euskara eta generizazio prozesuak. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 130, 79–105.
- Lave, J., eta Wenger, E. (1991/). *Situated Learning: Legitimate Peripheral Participation*. University Press.
- Magaña, O. (2023). Lo queer como mecanismo literario: Más allá de los binarismos a través del cuerpo monstruoso. *Cartaphilus*, 21, 63–81.
- Martín Rojo, L. (2020). Sujetos hablantes. In L. Martín Rojo eta J. Pujolar (Arg.), *Claves para entender el multilingüismo contemporáneo* (or. 165–198). Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- Martínez, L. (2012). *Cuerpos políticos feministas y el retorno de las corporalidades catalogadas como monstruosas para quebrantar la normalidad*. Master Amaierako Lana, Universidad de Granada.
- O'Rourke, B., eta Ramallo, F. (2013). Competing ideologies of linguistic authority amongst new speakers in contemporary Galicia. *Language in Society*, 42(3), 287–305.
- Ramallo, F., eta O'Rourke, B. (2014). Perfiles de neohablantes de gallego. *Digritum*, 16, 98–105.
- Silverstein, M. (1979). Language Structure and Linguistic Ideology. In P. Clyne, W. F. Hanks, eta C. L. Hofbauer (Arg.), *The elements: A parasession on linguistic units and levels*. (or. 193–247). Chicago Linguistic Society.
- Woolard, K. (2008). Les ideologies lingüístiques: Una visió general d'un camp des de l'antropologia lingüística. *Revista de Llengua i Dret*, 49, 179–199.
- Ziga, I. (2014). ¿El corto verano del transfeminismo? In M. Solá eta E. Urko (Arg.), *Transfeminismos: Epistemes, fricciones y flujos* (or. 81–87). Txalaparta.